

Korrika Irlandan

IRLANDARRAK ERE animatu dira. Euskal Herrian Korrika urte bakoitietan egiten bada, irlandarrek urte bikoitiak aukeratu dituzte. Datorren urtean, 2010ean egingo dute lehenengoa. 1.600 kilometroko ibilbidea prestatu dute. Belfasten hasiko da Rith 2010 (korrika esan nahi du gaelikoz). Bukaera berriz, Galway Cityn izango da. Martxoaren 10ean hasi eta 17an amaituko da. 400 hiri eta herri igaroko ditu leku-koak. www.rith.ie webgunea da antolatzaileen gune ofiziala.

Okasioa baliatuz, korrika egin eta bide batez, Irlanda ezagutzeko hainbat egunetako txangoak eskaini dituzte Internetez (www.extremei-reland.ie/tours/rith.aspx).

“Matxin” hobetzen ari da

ELEKA ENPRESA duela bost urte hasi zen Galiziako eta Herrialde Katalanetako enpresa eta unibertsitateekin batera Opentrad kode irekiko itzulpen automatikarako plata-forma garatzen. *Matxin* izeneko gaztelania-euskara itzultzaile automatikoaren bertsio hobetua prestatu du Elekak, Elhuyar Fundazioarekin eta EHUKo IXA taldearekin batera.

Itzultzailea www.opentrad.com webgunean erabil daiteke probak egiteko doan. Euskaratik gaztelanirako lehen prototipoa ere webgune berean dago erabiltzeko moduan.

Dena dela, euskara-gaztelania zein gaztelania-euskara itzultzaile automatikoak itzulpenak txukun

egitetik oso urrun daude, garatze bidean baino ez daude, eta webgune-ko adibideek lan eskerga nola doan aztarnaren bat baino ez digute emango. Ez okurritu itzulpenak Opentraden esku uzterik, batek baino gehiagok egin duen moduan.

EEPren ibilbide orria

BEHIN-BEHINEKOA adostu du. 2010 eta 2016 urteen artean hizkuntza proiektuaren helburu nagusia erabile-ra izango da, batik bat ondoko esparruetan: argitalpenetan, hedabideetan, garraioan, administrazioan eta umeen aisialdian. Behin betiko ibilbide orria datorren urteko ekainean adostuko dute. 2010erako 3.056.000 euroko aurrekontua izango du Euskararen Erakunde Publikoak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gure arrantza sektorea defendatu

Europar Batasunak Bizkaiko Golkoan antxoa arrantatzeko debekua urtarilaren 1etik aurrera kentzea onartu du. Urteko harrapaketa kopurua (TAC) 7.000 tonakoa izango da, arrantzaleek eskatzen zuten gutxienekoa. Kopuru hori datorren udaberrian errebisatuko da, txosten zientifiko berrien argitara. Bruselan joan den astean hartutako erabaki hori, bereziki Euskal Herriko arrantzaleei eragin dien ia bost urteko debekuaren ondoren dator. Debekuak jarrai zezala defendatzen duenik badagoen arren, egia bakarra da martxoan gure arrantzaleek kanpaina hasiko dutela. Beharrezkoa litzateke erakundeek arrantza bera eta arrantza egiteko arteak zaintzea, eta saihestea arrantza baliabide mugatu hori agortzea.

Hain zuzen, gure arrantza sektorea defendatzeko, Ondarroan, Euskal Herriko arrantza-portu garrantzitsuenetakoan, zenbait ekintza egin ziren LABen eskutik. Arrantza sektorearen egoera mahai gainean jarri dute, neurri estrukturalak hartzen ez badira desagertzeko arriskuan baitago. Logikoa da sindikatu abertzaleak plan estrategikoa eskatu izana, diagnostiko eta ikuspegi nazionaletik egin, bai eta Euskal Herriaren subiranotasun kontzeptutik eta egungo errealitatetik abiatuta ere. Prekarietatea eta merkatu-ratzea salatu dute, bitartekaritza kateak baino ez baititu aberasten. Horregatik, proposatu dute Nazio Kofradia sor dadila eta arrantzaren kudeaketa egin dadila nazio entitate publiko batetik. Gure arrantza sektorea defendatzeko borondate politikoa, eta indar politiko, ekonomiko, sindikal eta sozialen batasuna behar dira. Aitzitik, Lopezen Gobernua ez da, eta ez da izango ere, aliatu hoberena estrategia horretarako.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Diario de Noticias-eko editoriala: “Euskararen inguruko azken erabaki politikoek eta aurrekontuei buruzko erabakiek ez dute zalan-tzarako zirrikiturik utzi. UPNk, krisia probestuz, erabaki du hizkuntza politikan atzeraka egitea, 1990eko hamarkadan PSNko eta Madrilgo PPko sektore kontserbadoreenekin egindako bidera. Murrizketak Euskarabideari eta Euskaltzaindiari, hedabideei... (...) Pentsaezina Europar Batasuneko beste edozein tokitan, baina hemen normaltasuna balitz bezala inposatzen saiatzen dira”.

Joseba Igerabide Xaloa telebistako zuzendariak Berrian esanak: “Nafarroako iparraldean LTDren eremutik kanpo geratu zen, baina baikorra naiz eta espero dut azkenean Madrildik digitalean emititzeko baimena emango digutela. (...) Ez dut sinistu nahi Euskal Telebista Nafarroan ikusi ezingo dugunik. Modu batean ala bestean egongo da ETB ikusteko bideren bat. Erakundeek laguntzen ez badute, azkenean herritarren borondateari esker lortuko da ETB Nafarroan ikustea”.

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

Akusazioen lehen urratsak ahul

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

MADRILEN BAKARRIK ziren Egunkaria auziko auzipetuei elkartasuna ematera joandako euskaldun ugariak. Eta asko ziren, baina Madrilén txiki eta bakarrik. Ez dut katalan, madrildar eta bestelakoen urrezko elkartasuna gutxietsi gura, baina hala ere, Madrilén bakarrik. Bestelakoa da Euskal Herrian, elkartasuna eta sostengua itzelak dira bertan, eta berotasun hori Auzitegi Nazionaleko aulkira eramatea asko da auzipetuentzat. Ohikoan, hango atari eta korridoreetan elkartasun irribarre bakarra ere bihotzera sartzen da. Eta eguna joan, eguna etorri hori da ohikoa Auzitegi Nazionalan.

Ahozko auziak beti dakartza osagai berriak. Defentsa eta akusazioek argudio eta material indartsuenak jartzen dituzte agerian eta lehia nola garatzen den ikus dezakegu gainerakook. Auzipetuak entzuteko balio izan zuten lehen egunek eta, esan liteke, Javier Gomez Bermudez epaiahai buruak hitz egiten utzi ziela, besteak beste atxiloteta garaian jasandako torturez ("etakideek bezala torturak salatzen dituzte", zioen ABCk biharamonean).

Dignidad y Justicia eta AVT herri salaketek erabilitako lehen armen aahuladea, ordea, agerikoa zen. Batetik, lekuko eta perito gisa arituko diren guardia zibilak berberak izango direla erakutsi zuten. Epaileari *Egunkaria*-ren itxiera eskatu zion guardia zibilaren komandate bera —orain lekuko gisa agertu dena— ondorenguegunetan perito moduan agertzeko aukera izateak ez dirudi oso zuzenbidezkoa. Salbu eta Auzitegi Nazionalan.

Guardia Zibilen buruzagi honen esanetan, 1996an hasi ziren ETA eta *Egunkaria*-ren arteko loturak iker-



tzen, Tomas y Valienteren hilketaren ondoren, baina ezkutatu zuen horretarako erabilitako ETAre idazkiak 1990 eta 1993 artekoak zirela. Agiri horietan ETak euskal kulturako talde eta enpresa ugariren aipamena egiten zuen eta aipatze soil hori baliatu izan zuen guardia zibilak *Egunkaria* ixteko. 1993tik aurrera ez dago ETAre agiririk *Egunkaria*-z hitz egiten duenik.

Ikusi behar zer gehiago azalera-zen duten urtarrian, baina denak adierazten du behin eta berriro errepikatuko direla 1990-1993 garai horretako ETAre agirien erabilera, hori baita duten bakarra. Denak adierazten du defentsek samur utziko dutela agerian osagai horien aahuladea ("ETak agintzen zien euskara eta euskal kultura zabaltzea" eta gisakoak), baina ikusi beharko da epaimahaiak zer irakurketa egiten duen.

Orain arte bederen epaimahaiak ahozko auzira iristeko adina indar eta sinesgarritasun eman die akusazioek aurkeztutako agiriei. Auzitegi Nazionalaren ikuspegitik agiri garrantzitsuak dira, zalantza barik, froga horietan oinarrituta espetxeratu zituelako *Egin*-eko kazetari eta arduradunak 18/98 auzian. Baina auzi honi begira, hori bera da bere aahuladearen froga, jadanik erabiliak izan baitira *Egin*-eko kasuan.

Orain arte agiri horiek ez dute inondik inora frogatu ETak *Egunkaria* sortu zuenik, *Egunkaria*-k ETA finantzatzen zuela edo ETAre estrategia eta jarduna zilegiztatzen zituenik. "Jakina, ezin dena ezin da frogatu", diogu gehienok hemen. Baina auzia daraman Auzitegi Nazionaleko fiskalak ere berdin pentsatzen du, eta horregatik eskatzen du artxibatzea.

Eta orduan zergatik iritsi da ahozko auzira? Hara auzitegiaren korridoreetan dabilen hipotesi bat: auziak aspaldi itxia behar luke jada, ez dago arrazoi juridikorik aurrera jarraitzeko, baina bai bestelako presio handiak. Auzia artxiba zitekeen lehenago, baina akusazioen helegitea Auzitegi Gorenera iritsiko zen eta honek artxibatzea atzera botatzeko aukera gehiago izango zituen molde horretara. Ahozko auziak guztientzat absolutioa balekar, epaiaren helegitea atzera botatzea gaitzago izango ei luke Gorenak.

Hala bedi, baina hipotesi horrek zirrikitu ezkorak ere baditu. Ohiko "hori da zuzenbide estatuaren handitasuna" esango litzateke. Baina logikoena eta justiziazkoena den absolutio horrek erantzukizun eta indemnizazioen arazo latza dakarkio Estatuari. Egunkari bat itxia, oinarritzko eskubide urraketak, ehunka langile lan barik utziak, atxilotutako guztiei eragindako kalteak, euskal kulturari sortutakoa... Noren bizkar jarri beharko litzateke desmasia horren guztiaren erantzukizun politikoa? Zenbat milioi euroko kalteordain dakar horrek guztiak?

Urtarrilaren 12an jarraituko du auziak eta ondoren urtarriaren amaieran. Hori ere bitxia da, Madrilén ez da gehiegi entzuten hemengo hotsa, baina apur bat bai antza.